

**ERABAKIA, 2015eko URRIAREN 29koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ, IDAZKARITZA NAGUSIARAKO "ADMINISTRAZIOAREN BERRIKUNTZA ETA MODERNIZAZIOAREN ZERBITZU BURUA" LANPOSTUA ALDI BATEZ ETA ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO, EBATZI DA. (DEIALDIA, 2015eko UZTAILAREN 17koa).**

**GERTAKARIAK**

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2015eko uztailaren 17ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2015eko irailaren 15eko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

Laugarrena.- Deialdiaren bigarren eranskinean aurreikusitako elkarrizketa, lehenetsun orden bakoitzean lehiakideek lortzen duten posizioetan inolako eraginik ez duenez, ez da beharrezkoa egitea.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri:

- Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAan argitaratua).
- Gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko den 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia, UPV/EHUko errektorearena (2013ko otsailaren 13ko EHAA)
- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAA).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen 2015eko uztailaren 17ko erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko EHAA), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena: Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango

da. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

#### ERABAKI DU:

Idazkaritza Nagusiarako "Administrazioaren Berrikuntza eta Modernizazioaren Zerbitzu burua" lanpostua zerbitzu eginkizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Esleipena 2015eko azaroaren 3ko ondorio-datatz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2014ko uztailaren 1eko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean (Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak).

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Idazkaritza Nagusiko Koordinazioaren Arduradunari, eta nomenen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2015eko urriaren 29an.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia (2013ko otsailaren 13ko EHAA).

GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche



## I. ERANSKINA

**Esleipenduna:** IDOIA BLASCO CUEVA

**Ianpostua:** Administrazioaren Berrikuntza eta Modernizazioaren Zerbitzu burua

**Lanaldia:** Arautua

**Erref.:** F 1224

**Zenbatgarrena:** 1

**Taldea:** A

**Eskala edo kidegoa:** Gestio Teknikaria

**Maila:** 26

**Hizkuntza eskakizuna:** 3;2014/01/31

**Langunea:** IDAZKARITZA NAGUSIA

**Campusa:** BIZKAIA

**Ondorioetarako data:** 2015eko azaroaren 3a

II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERRENDA - ZERBITZU EGINKIZUNA - 15/07/17 DEIALDIA

1353 F 1224 Administrazioaren Berrikuntza eta Modernizazioaren Zerbitzu Burua Hor. 1 HE 3.14/01 IDAZKARITZA NAGUSIA

ADJ	DNI	DEITURAK, Izena	ORD	PUNT. GUZT.	ANTZIN		EMANDAKO SERBITZUAK		R- Tituluak		L- Tituluak		E- Tituluak		EHUn ZERD.		R- Tituluak		L- Tituluak		E- Tituluak		BESTE ADM.		GRADUA		TITUL.	IIIJK.	EUSKARA		ELKAR.	
					Urteak	Punt.	GUZT.	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	G	<	Punt.

a) Deitutako lanpostuaren talde eta eskala bereko karreradun funtzionarioak.

Adj	30579124	BLASCO CUEVA, IDOIA	1	34,4000	22	9,9	18,00	180	18,00					180	18,00	10	1,00							10	1,00	26	=	5,5	0,50	0,50	3	0			
	30617249	GONZALEZ-PINTO ARRILLAGA, MARIA	1	19,2000	14	6,3	11,40	94	9,40					94	9,40									20	2,00	20	2,00	23	-3	0,5	0,25	0,75	3	0	

d) Behin behineko funtzionarioak.

	14595505G	BERRIO RODRIGUEZ, MIREN IGONE	1	28,1000	24	10,8	16,80	72	7,20	41	4,10	50	5,00	163	16,30	5	0,50							5	0,50					0,50		3	0	
	16291574F	FERNANDEZ LARREA, IÑIGO	1	15,5000	8	3,6	9,40	44	4,40			50	5,00	94	9,40															2,00	0,50	4	0	
	30621044V	TABOADA PRIETO, MAITE	1	11,1000	6	2,7	7,90	59	5,90					59	5,90									20	2,00	20	2,00			0,50		3	0	